

Historiaren letra txikia

Koldo Sagasti

Duela astebete hemeretzi urte bete ziren Guardia Zibilak “Euskaldunon Egunkaria”-ren egoitzan sartu eta euskarazko kaze-
ta itxiarazi zuenetik. Argitalpenaren zuzendaritza taldeko kideak kartzelatu eta zenbait torturatu ere egin zituzten. Erasoak elkartasun uholdea eragin zuen Euskal Herriko gizartean. Lehenago “Egin” egunkariarekin gertatu zen bezala, urteetako epaiketak argitu zuen ez zela itxiera justifikatuko zuen balizko delituaren zantzurik; baina kaltea, ordu-
rako, egina zegoen.

Datorren astean 1976ko martxoaren 3ko sarraskia gogoratuko dugu Gastei-

zen. 46 urte pasatu badira ere, bizi-bi-
zirik dirau gasteiztarron oroimen ko-
lektiboan Espainiako Poliziak bost lan-
gile erail eta ehunka manifestari tiroz
zauritu zitueneko zorigaiztoko egun
hark, eta tradizioari fidel aurten ere ka-
lera aterako gara triskantzaren ardura-
dunek erantzun dezatela aldarrikatze-
ra. Eta 1875eko martxoaren 8ko New
Yorkeko ehungintzako langileen pro-
testaldiak ere izango ditugu gogoan.
Orduan, poliziak lan baldintza duina-
goak galdegiteko protestan ari ziren
120 emakume hil zituen.

Nork bere oroimenari eusten dio; ira-
bazleek, kontakizun ofiziala idazten

dutenek, testuliburuetan eta diru pu-
blikoz eraikitako mausoleoetan; eta
guk, historiagintza ofizialaren konta-
ketan tokirik ez daukagunok, belaunal-
diz belaunaldi elikatutako oroimen ko-
lektiboan.

«Zaharrak hil egingo dira eta gazteek
ahaztu egingo dute», esan omen zuen
David Ben Gurion buruzagi sionista eta
Israelgo lehen ministroak herri palesti-
narraren garbiketa etnikoa zuritzeko.
Eta oker zegoen, Palestinan edo New
Yorken, Euskal Herrian bezala, oroitzen
dugun bitartean ez baitute sekula iraba-
ziko gure historia letra txikiz idaztera
kondenatu nahi gaituztenek. •

Heriotza, mundu honetakoa

Amagoia Mujika
Telleria

Antonio Santa Kruz ereñotzua-
rra hil da, 99 urte harrapatze-
ko bidean. Begiratu zorrotzez
eta hitz jario elegantez bizita-
ko ia ehun urte. Duela urtebete argita-
ratu genuen orrialde hauetan Iñaki
Sanz-Azkuek eta biok Antoniori egin-
dako elkarrizketa. Uste dut ez Iñakik
eta ez nik ez dugula ahaztuko egun
hartako hizketaldia.

Bidenek AEBetako presidente kargua
hartu zuen eguna zen eta horri buruz
ere hitz egin zigun, «aitona horrek» zer
nezesidade ote zuen agintea hartzeko.
Pandemiaz, elkartasunaz, egungo jen-
darteaz, gerraz. Edozertaz hitz egin zi-
tekeen Antoniorekin, azken unera arte
burua oso argi izan du eta hizketarako
gaitasuna buru argi horren agindueta-
ra. Hizlari eta pentsalari apartekoa.

Egun hartako elkarrizketan heriotzaz
ere hitz egin zigun. Umetatik gertu
izan zuen heriotza. Hiru urte zituela
hil zitzaion ama. Bezperan amona ikusi
zuen amaren logelara sartzen, katilu
bat eskuan. Hurrengo egunean ama
falta mahaian. «Ama non da?», galdetu
zuen. «Jaungoikoak zerura eramana
du», esan zion amonak eta negarrez
hasi zen. Bederatzi urte baino gutxiago
zituela amonak Akolatik beheko Larre
Gainera bidali zuen kandelarekin, han-
go amona hil zelako. «Nik begietan
daukat hildako amona hura; beltzez
jantzia, kolore zuri-zuriarekin, sudur
luze-luzearekin, ohean etzanda eta de-
nak inguruan».

26 urte zituela oso gaixo egon zen,
hiltzorian. Hango eta hemengo medi-
kuak etorri ziren eta sendatu zen azke-

nerako, baina medikutan diru asko gas-
tatu ondoren. «Pentsa, nik hilabeteen
19 pezeta irabazten nituen eta medi-
kuek 700 pezeta kobratu. Sendatu nin-
tzen, baina nik diru hori kenduko zida-
tela jakinez gero, kanposantuan
egongo nintzen aspaldi».

Esan zigun heriotzak beldurra ema-
ten duela beti, baina gutxiago 98 urte-
rekin. Lasai ote zegoen galdetuta
baietz, «beste aldetik noiz deituko zain
nago. Adin hau gutxik harrapatzen du-
te eta ondo nago. Ondo bukatu nahi
dut, besterik ez». Esan zigun heriotza
ez dela beste munduko gauza, mundu
honetakoa dela. Deitu diote beste alde-
tik eta joan da, berak nahi zuen bezala.
Etxekoei besarkada eta eskertza, guk
ere izan genuelako Antonio Santa Kruz
ezagutzeko pribilegioa. •